

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure produktua funtziona dezan ezinbestekoa izango da hozkailuak ekoizten dituen enpresa batekin **akordio on** batera iristea, bai beraietzat eta baita guretzat. Akordioa hau izango da: saltzen duten hozkailu bakoitzeko %10eko komisioa emango digute, honela guk gure patentea erabiltzen utziko diegu, eta guk bueltan jasoko dugun komisioa baxua izango da, baina nahikoa tratu on batera iristeko. Behin akordio on horretara iritsita, produktuaren **ekoizpen fasea** hasiko dugu. Lehenago aipatuta bezala, hozkailu enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, beraiek hozkailuak hornitzeko, eta guk gure teknologia berria sartuz azken modako hozkailuak ekoiztea lortzeko.

Hozkailu **enpresa ekoizle nagusiei** gure patentea ustiatzea eskeiniko diegu, **Hautagaia** dira: Liebherr enpresa, Siemens enpresa, LG enpresa, Bosch enpresa, Balay enpresa eta Fagor enpresa. Gure teknologia enpresa bakoitzaren diseinu eta espazioetan integratzeko, gure enpresan kapitalean ekarpen txikiak (%5) neskainiko diegu, I+G+b-m elkarlanean egoki garatzeko. beraiek gure **patentea** erabiltzearen truke, guk komisioak jasoko ditugu ordainean, guri onura gehiago ekartzeko.

